

# Koopera Reusing Center

## 1 HITZAURREA

Txosten honen helburua Koopera Reusing Center berria ezagutzera ematea da: era guztietako objektuak eta tresnak, bestek beste, arropa, oinetakoak, bazarra, jostailuak, liburuak, aparatu elektronikoak eta etxeko tresna elektrikoak berrerabiltzeko lehen instalazioa.

Egungo ekonomia eta ingurumen krisian eredu berriak, gure hondakinak kudeatzeko modu berriak irudikatu behar ditugu. Koopera-n egunero lan egiten dugu Euskadi hondakinak murriztu eta, kontsumo arduratsuaren bidez, gizarte eta ingurumen justiziaz hondakinak baliabide gisa erabili nahi dituen berrerabilpenaren gizarte bihurtu dadin.

Hain zuzen ere egoera zail honetan, Instalazio berri honek, hondakin bihurtu baino lehen gure objektuak kudeatzeko ekologikoagoa den aukera bat eskaintzen du, eta horrez gain, gizarte bazterkeria arriskuan dauden pertsonentzat lanpostuak sortzeko ahalmena duena.

Sektore publikoaren, gizarte erakundeen eta finantza erakundeen topagunean parte hartzen duten administrazio publikoekin eta erakunde finantzatzaileekin ikuspegi hau koordinatzea ezinbestekoa izan da, aipatutako guztia lortzeko.

Koopera Reusing Center-ek garapen iraunkorraren hastapenak biltzen ditu **Gizarte eta Ingurumen berrikuntzaren** bitartez, **administrazioei eta herritarrei aurrezteko aukera** eskainiz.

**INGURUMENA**  
**GIZARTEA**  
**EKONOMIA**  
**GARAPEN IRAUNKORRA**

BIDEZKOA  
BIZIGARRIA  
BIDERAGARRIA

## 2 KOOPERA REUSING CENTER-EN INGURUMEN BERRIKUNTZA

Koopera Reusing Center, era guztietako objektuen (arropa, osagarriak, oinetakoak, liburuak, jostailuak, aparatu elektronikoak, etxetresna elektriko txikiak, bazarra, etab.) kudeaketa proposatzen duen **estatu mailako lehenengo Instalazio Automatizatu** da.

Azpiegitura estrategiko horri esker, era guztietako objektuak tratatu daitezke ingurumen eta ekonomia alorretako eraginkortasun irizpideen arabera. Produktuen balio-bizitza luzatzea hondakinen sorrera murrizteko edo saihesteko lehenengo bidea da. Gure gizartean "erabili eta botatzeko" ondasunak eta erosketa konpulsiboa gero eta orokorragoak direnez, kontsumo arduratsuan oinarritutako eredu bati bidea eman behar zaio.

Bizkaiko Foru Aldundiak prestatu duen II **BIZKAIKO HONDAKINEN KUDEAKETA INGURUKO PLANAREN (2005-2016)** barruan, hondakinen prebentzioa hondakinen kudeaketaren lehentasun nagusia da. Horren arabera, materialen berrerabilpena eta birziklapena balorizazio energetikoaren edo hondakinen isurketaren aurrean lehenetsi behar dira, aukera ekologiko onenak direlako. Hazkunde ekonomikoa ez da nahitaez erlazionatu behar ingurumenean eragin handiagoa sortzearekin. Honegatik aldundiak bere 2010-2016 **HONDAKINEN PREBENTZIORAKO PLANA** sortu zuen.

Izan ere, horrela, hirietako hondakinak kudeatzeko eredu eta azpiegitura berriak sustatuz, hauek berrerabilpenaren arloan Europar Batasunaren eskakizunetara moldatzen lagunduko baitigute.

Koopera Reusing Center-en inaugurazioa gertaera garrantzitsua da hondakinen kudeaketan eta berrerabilpenerako teknologia berrien aplikazioan lortutako berrikuntzari dagokionez. 1990 urtean Koopera-k berrerabilpenaren eremuan bere lana hasi zuenetik, Bizkaian berrerabilpena hobetzeko instalazioan integratzen diren prozesuak garatzen eta diseinatzen lagundu diguten eskarmentua, jakintza eta informazioa eskuratu ditugu.

### **2.1.- Koopera Reusing Center-en tratatuko diren hondakin berriak**

Teknologia berri hauei esker, **aurten berrerabilpenak eta birziklapenak %13 gora egin** ahal izango dute. Halaber, epe ertainera, **sortutako hondakina murriztu** ahal izango da, orain arte landu dugun **hondakina** gutxitzeko joerari jarraipena emanez.

Koopera Reusing Center lantegi berrira zera iritsiko da aurtan:

- \* 2.733.484 kilo ehun, 7.653.756 jantzi ematen dituztenak.
- \* 553.617 kilo oinetako eta osagarri, 1.550.128 ale inguru.
- \* 70.000 kilo jostailu, 233.100 ale.
- \* 69.000 kilo liburu, 188.370 ale.
- \* 29.410 kilo aparatu elektriko eta elektronikoko txiki, 42.530 ale.
- \* 5.190 kilo bazarreko produktu, 8.927 ale.

## **2.2.- Hondakinak Biltzeko prozesua**

Prozesuaren hasieran, Bizkaiko Lurralde Historikoan berrerabilpen Edukiontzia erabiltzen duten herritarrak daude, eta hauen kopurua egunero handituz doa.

Patente honen diseinuari esker, **gutxiagorekin gehiago, objektu gehiago espazio publiko gutxiago erabiliz, berrerabiltzea ahalbidetzen duen edukiontzi paregabe bat** jarri ahal izan dugu Bizkaiko herritarren eskura.

Edukiontzi horrek jada erakutsi du berrerabilpenerako gaikako bilketan eraginkorra dela, hurbileko bilketa sistemarik ez zuten beste objektu mota batzuk, jostailuak, liburuak eta bestelako etxe tresnak, adibidez, sustatuz.

Udalei kalitate oneko zerbitzu bat ahalik eta kostu txikienarekin eskaintzeko, bilketa sistemen eraginkortasuna berraztertu da, **kostuak murrizten dituen eta**, geroko berrerabilpena maximizatzearen, prozesu osoan zehar **objektuak babesten dituen bilketa sistema automatizatu eta berritzaile bat** garatzeko.

### **2.3.- Hondakinak Tratatzekeko prozesua**

Tratamendua optimizatzeko xedearekin, Koopera Reusing Center-en **ahotsa ezagutzeko teknologia barne hartzen duen sailkapen eta tratamendu automatikoko** sistema bat inplementatu da. Sistema aitzindari honek era guztietako objektuak instalazio berean eta eraginkortasun ekonomikoko irizpide batekin berrerabiltzea ahalbidetzen du.

Horren guztiaren emaitza izan da, aurreikuspenen arabera, urte gutxitan Bizkaiak gaur egun bere lurraldean berrerabiltzen diren 1.778 Tn-tik hondakin bihurtuko ez diren 3.371 Tn objektu berrerabiltzera iristea lortuko duela. Hau da, %90eko hazkundera edo, beste modu batera esanda, berrerabilitako objektuen kopuruak ia bikoiztea.

Berrerabilpen edukiontzia sailkapen eta tratamendu prozesuaren ondorioz, hurrengo urteetan portzentaje hauek lortuko ditugula aurreikusten dugu:

- %45eko berrerabilpena
- %32ko birziklapena
- %23ko hondakina

### **2.4.- Koopera Reusing Center instalazioa**

Koopera Reusing Center Mungiatik hurbil dago, Zabalondo Industrialdean, Derio Bideko 57.ean kokatuta. Lur-zati garbiaren azalera 6.800 m<sup>2</sup>-koa da. Lau angeluko eraikinak 4.550 m<sup>2</sup>-ko eraikitako azalera osoa hartzen du, eta beheko solairuaren eta lehen solairuaren (1.500 m<sup>2</sup>) artean banatzen da.

Koopera-k bere jarduera behar bezala aurrera eramateko beharrezko eta nahitaezko instalazio teknikoek hornitu du pabiloia. Honela, suteen aurkako instalazioak, bulegoetako klimatizazio sistema eta saneamenduak guztiz berritzeaz gain, ekipamendu osagarri oso bat instalatu da: nabe osoa integratzen duen errendimendu handiko zuntz optikoko datuen sare bat, barruko eta kanpoko bideo zaintza bidezko segurtasun sistema, makineria eta gailuen errekerimenduetara egokitzen den behe tentsioko sare bat, eta ekoizpen linea kontrolatzeko software bat, geuk garatutakoa, ekoizpen instalazioa osatzen duten elementu guztiak kudeatzen dituena.

Hori dena hondakin berreskuragarrien sailkapen linea berrian egiten den prozesua, bilketa prozesuaren automatizazioa, sarrerako biltegiatzea, tratamendua eta hondakin berreskuragarri nahi berrerabilgarrientzako (ehunak, jostailuak, liburuak, aparatu elektronikoak, etxetresna elektrikoak, bazarra, etab.) irteerako biltegia barne hartzen dituena, optimizatzeko helburuarekin.

### **3. GIZARTE BERRIKUNTZA: GIZARATERATZEA ETA LANERATZEA KOOPERA REUSING CENTER-EN FUNTSEZKO ARDATZ GISA**

Koopera Reusing Center Koopera Gizarte Sarearen ardatz egituratzaile bihurtzen da, lankidetzan oinarritutako gizarte ekonomia eredu bat indartzeko aukera ematen duten ekimenen sustatzaile gisa. Ereduaren orientazioa egoera ahulean dauden pertsonentzat gizarteratze eta laneratze prozesuak sortzeko helburuaren inguruan elkartzen diren erakundeetan oinarritzen da.

#### **3.1.- Gizarte eta Ingurumen Elkargunea**

Gaur egun, Koopera Reusing Center-ek hasi duen eta ordezkatzen duen industrialde sozial berri honetan zera aurkitu daiteke:

- Partaidetza, kudeaketan baterako erantzukizuna eta lanpostuak sortzearen aldeko apustua garatzen dituzten Herri Onurako eta Gizarte Ekimeneko Kooperatibak. Enpresa formula honek lortutako mozkinak ez daitezen banatu eta lanpostu berrien egonkortasunerako eta sorrerarako izan daitezen bermatzen du.
- Gizarteratze eta laneratze enpresak: denbora batez laguntzeko prozesuak erraztera bideratutako erakundeak, gizartean egoera ahulean dauden pertsonen enplegarritasuna hobetzea ahalbidetzen dutenak.
- Pertsonen arreta duin bihurtzeko prozesuak bultzatzen dituzten eta lanerako guneak indartzen laguntzen duten gizarte erakundeak.
- Heziketa ibilbideen bidez, lan-munduan txertatzea errazteko beharrezkoak diren aurretiko pausoak bideratzeko helburua duten gizarte erakundeak.

### **3.2.- Gizarte mailako lorpenak**

Gizarte Elkartegune berriak Euskadiri proposatzen dion helburu soziala bazterkeria jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden pertsonen Laneratze Aktiboa lortzea da.

Pentsiodun izan gabe Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten 46.000 pertsona izatearen erronkaren aurrean, eta Lanbide abian jarri zenetik aurrera, elkargune hau pertsonak lan-munduan txertatzea sustatzeko tresna bihurtzen da.

Denon artean, eta Gizarte Elkarteguneak eskaintzen duen gune berri honetatik, indarrak batu nahi ditugu eremu hauetan eraginkorragoak izateko:

- **Gizarteratzeko eta laneratzeko banakako prozesuak dinamizatzea.**

Kalitatea eta goxotasuna dutenak, pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko gaitasunak garatu ditzaten eta enpresa arruntera arrakastaz "salto egin" dezaten jarduera teknologikoak eskainiz.

Jatorri ezberdinetako pertsonen osaturiko taldeekin eta, hortaz, helburu ezberdinekin lan egiten dugu. Hemendik gure xede den merkatuaren beharrei erantzun nahi diegu, partaideak betiere protagonistatzat hartuz.

Talde lanaren bitartez, pertsonen protagonismoa eta duintasuna sustatzea, **"subsidio edo laguntzen jasotzaile pasibo diren pertsonak" izateri utzi diezaioten eta** izaera berritzailea duten enpresa proiektu berrietan parte hartzen duten **persona ekintzaile bihurtu daitezten.**

Kooperara osatzen dugun pertsona guztiak ekintzaileak gara. Aukera berri honekin, enprekin kooperatibako kide gisa bat egiten dugun pertsonak, geure esperientzia eta kemen guztia ekarriz. Honi esker, besteak beste, egungo egoera korapilatsua den arren, egunero Euskadiko ingurumenaren eta gizartearen errealitatea hobetzen jarraitu dezakegu.

Denetik dago gure artean eta, gure ustez, horrek aberasten gaitu eta gure osagaien balioak bateratzeko aukera ematen digu.

- **Bazterkeria jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden pertsonen Laneratze Aktiboa bultzatzea.**

Egungo egoera hobetzea eta laguntza nahiz laneratze prozesuak abiatzeko pertsonen kopurua handitzea ahalbidetzen duen jarduera sortzeko aukerak indartzen ditu gune honek.

Elkargune honetan eta espazio berri honetatik, gure jarduera indartu eta ezagutarazi nahi dugu, jaiotzean ezarri genituen gizarte, ekonomia eta ingurumen alorretako helburuak lortzeko aukera ematen duten ekimen berriak proposatzen lagunduz.

- **Esperimentazio gune gisa erreferente izatea.**

Nahasketa eta esperimentazioa lan egiteko modu berriak jasotzeko eta sistematizatzeko aprobetxatu nahi ditugu, ingurumen eta enplegu jardueren eremuan behatoki gailen bihurtu ahal izateko sarean lan eginez.

- **Sentsibilizazioa ingurumen eta gizarte alorretan.**

Garapen iraunkorrari eta laneratze aktiboari buruz gehiago jakin nahi duten ikasleen, adinekoen, interes taldeen eta abarren bisitak jasotzeko lokal bat eskainiko dugu.

### **3.3.- Bazterkeria jasaten duten kolektiboentzat lanpostuak sortzea.**

2011 urtean zehar, sortu diren lanpostuekin eta sartu diren erakundeekin, 196 jardunaldi antolatzea lortu dugu. Jardueran **264 pertsonak** parte hartu dute, era batera nahiz bestera: kideak, langileak, aldi baterako enplegu programak, laneratzea, eta abar.

Bizitzen ari garen egoera zailean, Koopera-k egin duen ahalegin kolektiboari esker, 2011 urtean, aurreko urteari dagokionez, jardunaldi kopurua **%7 igo dugu**.

Koopera Reusing Center eta ingurune berri honek eskaintzen dituen aukerak direla eta, gaur egun zentroa osatzen duten pertsonak mantendu ahal izango dira eta zentroak hurrengo urteetan helburu izango diren kolektiboan artean lanpostuak sortzen jarraituko du. Orobat, erakunde berriak elkartu daitezten lankidetzak guneak indartu ahal izango dira.

## **4.- KOOPERA REUSING CENTER-EK KOSTUAK AURREZTEN DITU ADMINISTRAZIOENTZAT ETA HERRITARRENTZAT**

### **4.1.- Koopera Reusing Center-en egindako inbertsioa**

Instalazio hau egiteko guztira 6.171.093 euro inbertitu dira.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailak, 2011rako bere aurrekontuan, guztira 906.159 € esleitzen ditu zentroan egokitzapen lanak egiteko eta automatizazio makineria erosteko, Bizkaian hondakinen berrerabilpena hobetzeko helburuarekin.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzak 1.000.000 euro eman ditu proiektu hau garatzeko, instalazio berri honek sortu dituen lanpostuengatik.

Koopera Gizarte Sareak beste bi herenak jarri ditu, 4.264.934 euro, gehienbat finantza erakundeekin finantzaketa adostuz.

### **4.2.- Kostuak aurrezteko hiriko hondakinen bilketan eta tratamenduan. Kutxa publikoentzako itzulkina.**

Koopera Reusing Center instalazio berria mugarri izango da hiriko hondakin berrerabilgarrien bilketari dagokien kostuei, hala nola, hondakinen sailkapen eta tratamenduari dagokionez.

Berrerabilpen edukiontzi berriak eta sailkapen sistema mekanizatua duen nabe berriak gastu aldakorak gutxitzea eta etorkizuneko eguneko produktibitate ratioak nabarmen hobetzea ekarriko dute.

Horregatik, ingurumen eta gizarte alorretako berrikuntza hauei, egindako inbertsioari eta Koopera Gizarte Sarean bultzatutako hazkundeari esker, **2012 urtean administrazioak bi milioi euro baino gehiagoko itzulkina** jaso du. Hau dena hondakinen kudeaketan, eta ordaindu beharko ez diren Diru Sarrerak Bermatzeko Errentetan nahiz Gizarte Arretan lortutako aurrezkiaren bidez, hala nola, jarduera ekonomikoak eta lanpostuen sorrerak, zerga eta Gizarte Segurantzarako ekarpen gisa, ekartzen dituen mozkinen bidez.

## **5.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN ETA GIZARTE EKONOMIA SOLIDARIOAREN ARTEKO LANKIDETZA**

Koopera Reusing Center instalazioa eta bertan kokatzen den Gizarte Elkargunea ez ziren inola ere egingo agente publiko eta pribatu ezberdinen laguntza gabe.

### **5.1.- KOOPERA Gizarte Sarea**

KOOPERA GIZARTE SAREA herri ekimeneko bigarren mailako kooperatiba bat da, eta bere xedea irabazi asmorik gabeko erakundeen gizarte sarea bihurtzea da; batez ere, ingurumena defendatzeko jardueren eta gizarte zerbitzuen bitartez, bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonak jasaten duten bazterkeriaren aurka borrokatzen duten eta beren gizarteratzea nahiz laneratzea sustatzen duten herri ekimeneko kooperatibak eta laneratze enpresak.

Orain arte Koopera Gizarte Sarean elkartu diren 8 erakundeak hauek dira: Rezikleta S. Koop., Berohi S. Koop., Ekiber S. Koop. eta E.I., Ekorropa S. Koop., KPR Consulting S. Koop., Ekorrepara S. Koop. eta E.I., Lanberri Elkarte, eta Bizkaiko Elizbarrutiko Cáritas bazkide laguntzaile gisa.

Kide diren erakundeez gain, Koopera Gizarte Sareak beste 3 laneratze enpresa (Berziklatu S.L., Liburki S.L.L. eta Alkar Biziz S.L.) eta nazioarteko 2 proiektu (Koopera Chile S.p.A. eta Ekorropa Rumania S.R.L.) sustatzen ditu.

### **5.2.- Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Mungiaiko Udala**

Euskal administrazioaren 3 mailek interes handiz hartu dute ekimena, eta proiektua bultzatzeko konpromiso irmoa hartu dute.

**Bizkaiko Foru Aldundiak, Ingurumen Saitetik**, instituzio berak prestatu duen Hondakinen inguruko Prebentzio Planean onartutako estrategiaren eremuan, hondakinak berrerabiltzeko zentro berritzaile hau babestea erabaki du. Bere ekarpena Koopera Reusing Center-en egokitzapen lanak finantzatzeko erabili da. Eta, batik bat, Bizkaiko udalerrri ezberdinek berrerabilpen edukiontzia instalatzea irmo sustatu du.

**Eusko Jaurlaritzak ere, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saitetik**, ekimen hau gogotik babestu du. Kasu honetan, babesa Eusko Jaurlaritza eta Lanbide gizarte bazterkeria jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden pertsonentzat sustatzen hasi diren Laneratze Aktiborako politiken eremuan eman da. Honela, laneratze enpresa eta herri ekimeneko kooperatiba ezberdinei bertan instalatzeko eta ekintza sozial berriak martxan jartzearren elkarrekin lan egiteko aukera eman dien Gizarte Elkargune berritzaile hau abiarazten lagundu du Eusko Jaurlaritzak. Gure gizarteko pertsona ahulenentzat lanpostuak sortzen dituzten gizarte enpresa berriak.

Eta azkenik, **Mungiaiko Udalak** ere, Koopera Reusing Center hartu duen udalerria denez, eskualde honentzat hain onuragarria izango den gizarte ekonomiaren aldeko proiektu honetan parte hartu nahi izan du.

### **5.3.- Fiare, Caja Laboral eta IparKutxa**



Koopera Reusing Center-engan konfiantza izan duten eta inbertsioa finantzatu duten finantza erakundeei eskerrak eman nahi dizkiegu.

Zorionez, gaur egun Euskadin existitzen diren 3 kreditu kooperatibek,

- Mondragon taldeko Caja Laboral,
  - gure baserritarrek sortutako IparKutxa, eta
  - Banca Etica Fiare, finantza solidarioen alorrean sortu berri den ekimena,
- eragiketa honetarako beren lankidetzak eskaini dute, hiruren artean eta ekarpen berdinarekin hipoteka kreditu mankomunatu bat emanez.

Egiaz paradigmaticoa da Euskadiko kreditu kooperatiba guztiek Koopera Gizarte Sarea, Euskadiko gizarteratze nahiz laneratze enpresen eta herri ekimeneko kooperatiben bigarren mailako kooperatiba berritzaile hau, finantzatzeko beren indarrak batu izana.

Laburbilduz, gure ustez, Koopera Reusing Center-ek argi frogatzen du **administrazio publiko ezberdinen** eta pertsonak interesgune bihurtu nahi dituen **gizarte ekonomia solidarioaren arteko lankidetzak** gertatu daitekeela eta emaitza bikainak ematen dituela.

Koopera-k eskerrak eman nahi dizkie Koopera Reusing Center-engan konfiantza izan dutenei eta, horrela, Euskadin ingurumen eta gizarte mailako aldaketa bultzatu duten guztiei.